


# euskararen berripapera

# 2010



## Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren 2010eko aurrekontuak

**Krisi ekonomikoak eraginda murrizketak egin behar izan diren arren, ahalegin berezia egin da diru-laguntzak jaitsieratik salbu uzteko.**

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak 296 milioi euroko aurrekontua izango du 2010ean. Horietatik 54.221.595 euro Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarako (HPS) izango dira. Sailburuordetza honen 2010eko aurrekontuen edukia eta aurreko urtekoena ezberdinak direla azpimarratu du Blanca Urgell Kultura sailburuak, bultzatu nahi dugun hizkuntza-politikaren helburu nagusietako bat euskararen ezagutzatik erabilerara jauzi kualitatiboa egitea izango baita.

### HPSren 2010eko jardunbide nagusiak

HPSk Euskararen Legearekin eta bereziki, Euskararen Aholku Batzordearen XXI. Mende Hasierako Hizkuntza Politikarentzako lehentasunezko ildoekin bat egin du eta lerro horiei jarraiki bideratuko ditu jardunbide nagusiak.

Hala, Euskararen erabilera eta transmisioa bultzatuko ditu. Gazteen artean familia transmisio bidez eta irakas-kuntzaren bidez egingo da eta helduen artean berriz, HABE eta helduen euskalduntze eta alfabetatzerako sarearen bidez. Euskara etorkinengana ere hurbiltzeko ahalegina egingo da.

Euskaraz komunikatzeko estandarrak malgutu eta aberastuko dira. Horretarako, hainbat erakunde eta

elkarterekin lankidetzak-hitzarmenak sinatuko dira, besteak beste.

Alor publikoari dagokionez, Elebide, Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Zerbitzua indartuko da, eta EBPN (Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia) eta erabilera-planak berrikusiko dira. Alor sozioekonomiko pribatuan ere euskararen erabilera sustatuko da Lanhitz programaren bitartez.


Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak (IKT) euskararen garapenerako baliatzea izango da 2010eko beste jardunbide nagusi bat. Alor horretan, ikerketa eta garapena izango dira ardatzak.

Euskarazko kultura kontsumoa indartuko da eta euskararen irudiari prestigioa emango zaio. Hala, euskarazko produktuen kontsumoa eta sorkuntza bultzatzeko hainbat diru-laguntza emango dira.

Azkenik, euskara mundu zabalean hedatu eta sustatzeko lanean jarraituko du HPSk, Etxepare Institutua abian jartzeko pausoei jarraituz eta beste herrialde batzuekin koordinazio sareetan parte hartuz.

Aurreko urteetan bezala, HPSren aurrekontuetako kopuru esanguratsua diru-laguntzetara bideratuko da. Aurten, gainera, ahalegin berezia egin da diru-laguntzak krisiak eragindako jaitsieratik salbu uzteko ●

### HPSren 2010eko aurrekontua: 54.221.595 euro



Euskararen erabilera bultzatzeko 2010eko diru-laguntzak	
Hedabideak	5.725.000 euro
Lanhitz	2.200.000 euro
Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)	1.800.000 euro
IKT	1.626.000 euro
Euskalgintza	1.339.000 euro

## Euskara Sustatzeko Zuzendaritza

Aurrekontuen nondik norako nagusiak aintzat hartuta, euskararen sustapenerako atalari euskararen gizar-te alor eta gun e guztietan ahalegin handia egitea dagokio.

Euskal hiztunen eskuetan dago euskararen jarraipena. Euskaraz bizi, irakurri, entzun, ikusi..., hori guztia egiteko eragileak eta sustatzaileak behar dira euskal hiri, herri eta auzoetan. Euskararen erabilera eta transmisiorako, euskaraz komunikatzeko estandarrik aberasteko eta abarretarako, gazteak eta umeak euskara erabiltzera eramango dituzten elkarteak, euskarazko aldizkariak, irratia eta abar behar dira. Asko eta asko ekimen txikiak dira, beste batzuk txiki osaturik handi bihurtzen direnak. Horientzat guztientzat Euskalgintza (1.339.000 €) eta Hedabideak (5.725.000 €) diru-laguntza deialdiak izango dira aurrean ere. Eta ahalegin berezia egin da bi atal hauetan, krisi ekonomikoak eraginda oro har aurrekontuetan egin behar izan den jaitsieratik salbu uztea lortu baita. Laguntza hauek jaso ditzaketen gehienek gutxi behar dute bizitzeko, baina baita ere oso gutxi eraman ditzake amildegira.

Euskara indarberritzen jarraituko bada, gizarteari hauspoa ematen jarraitu behar da euskara ikasi, euskara erabili dadin. Horretarako euskararen aldeko kanpainak burutuko dira, besteak beste Euskararen Nazioarteko Eguna eta Euskal Herriko Itzulia aprobetxatuz.

Euskaraz ere bizi nahi duen orok horretarako behar diren baliabideak lantzen jarraitzea bideratuko du HPSk diru kantitate handi bat. Teknologia berrietan euskara sustatzeko erreminta, tresna, programa eta abar berriak landuko dira urte honetan.

Euskararen erakunde sustatzaile nagusiek egiten duten lana beharrezkoa da. Euskaltzaindia, Bertsozale Elkarte, Labayru Ikastegia, EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretuen Elkarte), Topagunea Euskara Elkartearen Federazioarekin..., lankidetzan jarraituko du HPSk aurrean ere.

Euskararen erabilera eta sustapena gure hizkuntzaren geografia osora hedatzeko guztiz garrantzitsua da gure lurralde mugakideetako erakundeekin lanean jarraitzea. Lurralde horietako herri-erakunde desberdinekin lankidetzan jardungo du, besteak beste Euskararen Erakunde Publikoaren (Office Public de la Langue Basque), Euskal Kultur Erakundearekin (Institut Culturel Basque) eta abarrekin. Nafarroako euskal eragileentzako laguntzak ere jasota daude aurrekontu hauetan. Zentzu berean, mundu zabaleko hainbat eta hainbat unibertsitateetan Euskara eta Euskal Kulturako irakurleen sarean lanean jarraituko du HPSk eta unibertsitate gehiago sartuko dira bertan.

Euskarazko kultura-kontsumoa indartzeko ahaleginean, euskarazko irakurketa publikoa bultzatzeko programa eta ikus-entzunezko materialetan euskara sustatzeko programa berriak dira. Kultura Saitetik alor horietan egingo den lana sendotzera datoz bi programa hauek, irakurketaren eta ikus-entzunezkoen alorretan dauden beharrak ahalik eta gehien asetzera.

Euskararen estandarizazio lanen atalak beharrezko diru-partida izendatua dauka 2010erako aurrekontuetan. Euskalterm, izendegi geografikoa, hiztegi terminologikoak alde batetik eta toponimia lanak bestetik, guztiekin jarraituko dugu ●

LAN-ILDO NAGUSIAK	
HIZKUNTZA NORMALIZATZEA	
EBPN deialdia	1.800.000 euro
Herri-administrazioetan euskara normalizatzea (planen tarteko ebaluazioa egitea, IRATI aplikazio informatikoa hobetzea, hizkuntza-normalkuntzarako teknikariak trebatzea...)	150.000 euro
Elebide zerbitzua gizarteratzeko kanpaina	50.000 euro
Euskarazko ziurtagirien erregistro bateratua	50.000 euro
EUDEL-en eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko lankidetzaren hitzarmena	28.000 euro
HABE	
Euskaltegi pribatuentzako diru-laguntzak	19.423.000 euro
Udal euskaltegi entzako diru-laguntzak	12.662.000 euro
Ikasleentzako diru-laguntzak	1.850.000 euro
Euskal etxeentzako diru-laguntzak	230.000 euro

# Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritza

3.187.326 euroko aurrekontua du zuzendaritza honek —langile gastuak barne direla— 2010. urterako. Hona diru horrekin aurrera eramango diren proiektuetatik azpimarratu nahi ditugun batzuk:

- Herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko planen tarteko ebaluazioa egitea Euskal Autonomia Erkidegoan. 2008-2012. plangintzaldiko hirugarren urtea denez, aurten egin behar da, Eusko Jaurlaritzan, foru aldundietan, udaletan eta haien menpeko erakundeetan ere. 50.000 euroko diru aurreikuspena dago.
- Erabilera planen testuinguruan, bai Eusko Jaurlaritzako eta haren erakunde autonomoetako langileak, bai herritarrak euskara erabiltzera bultzatzea. Batetik, zeharkako mezuen bidez, euskara erabiltzeko premiaz langileak eta herritarrak sentsibilizatzea, eta bestetik, komunikazio sare bat osatzea Jaurlaritzaren barruan, behar denean, planaren garapenez eta abian dauden ekimenez informazioa izan dezaten eta iritzia eman. Ebaluazioa burutu eta emaitzak argitaratzeko 50.000 euroko aurrekontua dago.
- Prestakuntza saio batzuk: lehenik, Jaurlaritzako euskara teknikarientzat IVAPekin batera antolatuta; bigarrenik, IRATI aplikazio informatikoaren ingurukoak herri-administrazioetako euskara teknikarientzat eta, hirugarrenik, Udaltop jardunaldien antolaketan aritzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin, Lasarte-Oriako Udalarekin eta EUDELEkin batera.
- Euskara Biziberritzeko Plan Nagusien diru-laguntzen deialdia eta EUDELEn eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren arteko lankidetzaren hitzarmena. Ekimen bien helburua planak diseinatzea da baita haien kudeaketa planetako proiektuak bultzatzea ere. 1.828.000 euro jarri dira honetarako.
- Elebide zerbitzua gizarteratzeko kanpaina. Herritarren hizkuntza-eskubideak bermatzeko zerbitzu honen berri eman behar zaie herritarrei. Elebidek erantzun egiten die herritarren zalantzei eta kexei, eta saiatu irtenbideak bilatzen bere bitartekari-lanaren bidez. 50.000 euroko diru-partida dago kanpaina hori bideratzeko.
- Euskarazko ziurtagirien erregistro bateratua. Euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak arautu ondoren, eta titulu horiek guztiak Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratura egokitzeko bidea egin ondoren, informazio hori erregistro bakar batean bildu nahi da, kasuan kasuko titulu edo ziurtagiriak kudeatzen dituzten erakundeetan dauden erregistroez gain. 50.000 euroko aurrekontua du egitasmo honek ●

LAN-ILDO NAGUSIAK	
<b>SUSTAPENA</b>	
Hedabideak eta Euskalgintza deialdiak	7.064.000 euro
Euskararen erakunde sustatzaile nagusiekin hitzarmenak (Euskaltzaindia, Bertsozaleen Elkartea, Labayru, EIZIE, Topagunea)	2.154.000 euro
Euskara teknologia berrietan sustatzea (Euskalterm, itzulpen automatikoko tresna...)	1.395.000 euro
Euskarazko irakurketa publikoa bultzatzeko eta ikus-entzunezko materialetan euskara sustatzeko programak	1.137.000 euro
Euskararen hizkuntza esparruko erakunde eta entitateekin lankidetzaren hitzarmenak	662.000 euro
Euskararen aldeko motibazioa eta sentsibilizazioa	300.000 euro
<b>KOORDINAZIOA</b>	
Lanhitz eta IKT deialdiak	3.826.000 euro
Bikain ziurtagiria	180.000 euro
EAEtik kanpoko hizkuntza-politikako agenteekiko lankidetzaren hitzarmenak, sareak eta ikerketa-proiektuak	120.000 euro
Euskara-planak zabaltzea entitate pribatuetan	100.000 euro

# Koordinaziorako Zuzendaritza

Zuzendaritzaren hiru antolaketa zerbitzu hartu dira kontuan: (1) Ikerketa, (2) Teknologia eta (3) Enpresa. Zentzu horretan, hiru zerbitzuen arteko elkarlan intentsiboa sustatu nahi da, barrutik, I+G+b logika eman nahi izan zaio, kanpoko eragileekin oro har, lana eta interlokuzio tekniko egokia izan dadin.

Koordinazio Zuzendaritzaren lan ildo nagusia EUSKARA 2.0 = Euskara + Berrikuntza izango da. Hau da: Euskararen Ikerketa (1) + Garapena/Teknologia (2) + Enpresa/Berrikuntza (3), proposatu, bideratu, gauzatu, elkarlanean eragileekin. Lau ardatz estrategikoren eta hiru proiektu estrategikoren arabera egingo da lan 2010. urtean:

## Ardatz estrategikoak

- Teknologia + Ziberespazioa: *Social Networks, Social Medias, Cloud Computing.*
- Eleaniztasuna + Aniztasuna + Etorkinak: hizkuntzak, elkarbizitza, industriak.
- Enpresa + Berrikuntza + Balio erantsia: markagintza, 2.0 teknologiak, ekintzailetasuna, sormena, parte-hartzea.

- Nazioartekotzea + Kanpo proiektzioa: behaketa teknologikoa, Europar Batasuna, domeinu linguistikoa.

## 2010erako proiektu estrategikoak

**www.euskara2puntu0.com** barne eta kanpo plataforma interaktiboa diseinatu eta abian jartzea:

- Ikerketa zerbitzutik: "Euskara 2.0 eta Gizarte sareak" ikerketa-proiektua abian da jadanik. Etorkinak, EB eta kanpo proiektzioa ikerketa gai izango dira legealdian zehar ere.
- Teknologia zerbitzutik: "Euskara 2.0: Euskararen erabilera sustatzeko estrategiak, Europar Batasuneko eremu urriko hizkuntzen praktika berritzaile eta teknologikoak ezagutu eta aplikatuz" EHUko Udako Ikastaroa uztailan ospatuko da. Jadanik abian dago beraz. Bestalde, IKT deialdia eta behaketa teknologikoa izango dira egiteko nagusiak.
- Enpresa zerbitzutik: "Euskara 2.0: Euskara+Berrikuntza+Enpresa" italde antolatu eta bultzatu egingo da. Bestalde, Lanhitz deialdia, Bikain deialdia eta ziurtagiria izango dira egiteko nagusiak ●

# HABE

Aurten HABEk 44.984.000 euroko aurrekontua du. Jarraian 2010eko helburu nagusiak:

- Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluaren (HEOK) diseinua eta egikaritzea. Laugarren mailakoa garatzea eta A1, A2 eta B1 mailetako azpiatalak zehazteari ekitea da helburu nagusia.
- Materialgintza-proiektua eta homologazioa. Ikasle eta irakasleentzako material didaktikoa eskaintzen duen IKASBIL web atariaren berritze prozesua abian jarritzea. Software, hardware eta diseinu berrituen bidez atariko funtzionalitate zaharrak bermatzea eta berriak ezartzea izango da helburua. Teknologia berriez baliatuz, euskararen irakaskuntzan etengabeko hobekuntza sustatzea da xedea.
- Euskal Irrati eta Telebistarekin elkarlanean, euskara ikasten ari direnentzat programak sortzea eta euskaltegi-tako ikasleentzat lantzeko tresna bihurtzea.

- Irakasleen prestakuntza eta euskaltegien formazio-proiektuak sustatu eta ahalbidetzea. HABEren funts bibliografikoa zabaltzeaz eta liburutegiaren zerbitzuak hedatzeaz gain, beste hiru helburu nagusi daude: mundu digitalera jauzi nabarmenagoa egitea, biblioteken sareetan parte hartzea eta esparruko talde profesionalekin harremanak sendotzea.
- Euskaltegien jardueraren eraketa eta jarraipena. Ikuskatzailetza sendotzea izango da arlo honetan zeregin nagusia.
- Ikas-irakasprozesuaren jarraipena eta ebaluazioa. Arlo honetan egiaztatze-probetara aurkeztzen diren azterketarien kopurua aintzakotzat hartuta, proba horiek antolatze eta kudeatzeko bideak arintzea eta hobetzea da erronka.
- Euskalduntze-alfabetatzeko sektorearen finantzazioa. Sektoreko eragileen diru-laguntzak kudeatzea ●

Datu pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoan ezarritakoa betez, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak jakinarazten dizu zure datu pertsonalak Euskara Sustatzeko Zuzendaritzaren kontaktu-fitxategian sartuko ditugula, ondoren, agerkari hau zabaltzeko eta Hizkuntza Politikarako Sailbuordetzaren zenbait argitalpenen berri emateko. Aipatutako Lege horretan jasotzen den moduan, datuok ikusi, zuzendu edo ezabatu nahi dituzula edo ez dituzula jarri nahi adierazteko, honako helbide honetara jo dezakezu: Kultura Saila / Zerbitzu Zuzendaritza / Donostia kalea 1 / 01010 Vitoria-Gasteiz.

*Euskararen Berripapera* doan jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

- Paperezkoa jasotzeko: Eusko Jaurlaritza / Hizkuntza Politikarako Sailbuordetza / Donostia kalea, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)  
Tel.: 945 01 69 44 • [berripapera@ej-gv.es](mailto:berripapera@ej-gv.es)
- Bertsio digitala jasotzeko egin harpidetza [www.euskara.euskadi.net/berripapera](http://www.euskara.euskadi.net/berripapera) helbidean.

www.euskara.euskadi.net/berripapera  
euskararen  
berripapera